

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?

Otaku Zonek bere produktuak iritsiko dituen bide nagusia denda bera izango da. Baina, lehen aipatu dugun bezala, badakigu horrek gure bezero guztien irismena gehiegi mugatuko ligukeela; horregatik, gure online denda izango da arazo horren konponbidea.

www.otakuzonebilbao.com webguneak bere produktuak Espainiako Estatuko edozein lekutatik erosteko ahalmena eskainiko die gure bezeroei (uharteak eta hiri autonomoak kenduta, bidalketaren prezioa gehiegizkoa baita), eta honako ordainketa-metodo hauen bidez: PayPal, banku-txartela edo VISA.

Bestalde, produktuak online bidalketen konparatzaile baten bidez bilduko dira, zehazki Genei, bere sektoreko hoberena dena.



Bezeroak gutaz jakingo dute batez ere sare sozialetan presentzia izugarria izango dugulako. Instagram, Twitter, Facebook... Garrantzi handia dute gaur egungo sozietatean eta negozioek zein langileek nahitaez izan behar dute hauek erabiltzeko bertutea.

Bertan, publizitatuko gara iragarkien bidez, bezero berriak erakartzeko helburuarekin, nola ez. Ildo berean, erosleek izango dute aukera gure lokalaren giroa, zerbitzua edota produktuak baloratzeko, gure puntu ahulei buruz azkar konturatu gaitezen. Egia esanda, enpresa askok ez dute txosten hau betetzeko aukera ematen.



Erosketa prozesuari dagokionez, ahalik eta erosoan izatea saiatuko dugu. Ez produktuak, ez saltzaileak, garrantzitsuena da nola sentitzen den bezeroa. Ordaintzeko metodo azkarrak eta WIFI sistema sendoa izango ditugu eskura, merkatuan dauden teknologia berritzailei esker. Gaur egun, internet sistema azkarra izatea oso komenigarria da, batez ere lokal batean, non ordenagailuen erabilera da gure diru-iturri nagusia.



Entrega modu desberdinak daude. Erositako produktua bolumen handikoa bada, etxera eraman genezake **SEUR** bitartez, kostu hau bezeroak ordainduz, eta etxetik zein dendan eskaera egin bada, gure lokalean bertan gauzatuko litzateke entrega



Argi dago zer egin nahi dugun, baina **zer dira zehazki kanalak?**

Kanalak dira bezeroak gure enpresarekin konektatzen dituzten bitartekoak. Gure produktua sustatzeko eta bezero-nitxo espezifiko bati emateko erabiltzen dira.

Kanala gure enpresaren eta bezeroaren arteko harremanetarako edozein elementu da. Bezeroak gure produktua edo zerbitzua eskuratzeko erabiltzen duen edozein interfaze ere sartzen da.

Hainbat kanal mota erabiliko ditugu: zuzenak eta zeharkakoak.

Zuzeneko kanalak

Gure negozioaren berezko kontaktu-puntuak dira, bezeroarekin konektatzeko. Ikus ditzagun gure enpresan izan ditzakegun zuzeneko kanalen adibide batzuk:

- Web orria www.otakuzonebilbao.com
- Sare sozialak Twitter, Instagram, Yahoo...
- Denda sarea Frankiziak eratzeko posibilitatea
- Salmenta-indarra Marketing bidez
- Sustapen-proiektuak E3, Japan Week (Otakuei zuzendutako makro-ekintzak)

Zeharkako kanalak

Zeharkako kanaletarako, bitartekariak behar ditugu. Hirugarrenen kanalak edo bezeroari gure produktua eramaten lagunduko diguten partnerrak izan daitezke. Hona hemen kanal hauek:

- Hirugarrenen webguneak El Correo, Deia
- Hirugarrenen dendak *Joker* dendarekin (Komiki denda, Bilbon)
- Komunikabideak Irratia, TV iragarkia, egunkariak

Zeharkako kanalak desafiatzaileagoak dira, ez baitugu hainbesteko kontrolik eta irabazi gutxiago sortzen baitizkigute gure enpresari, irabaziak bitartekari guztien artean banatu behar baitira.